



.....-k **i2BASQUE**
SAREAn afiliatzeko eskaera

.....Jauna,
 NAN-arekin.....,
-ren ordezkari legal gisa,
 elkartearen egoitza-n izanik, eta
IFK-rekin, aurrerantzean, *erakunde eskatzailea*.

Kontuan izanik

1. i2BASQUE, Euskal Herriko komunikazio aurreratuen sareak, I+G+B zerbitzuak eskaintzen dizkiela fondo publikoz finantzaturako erakunde, ikerketa eta goi-irakaskuntza zentroei.
2. i2BASQUE-ek bere entitate afiliatuei bere I+G+B jardueretarako datu transmisio gaitasun handia eta komunikazio aurreratuak eskaintzen dizkiela.
3. i2BASQUE-k RedIRIS estatu mailako sarera konexioa eskaintzen du, eta honen bitartez, nazioarteko ikerketa sareetara (Géant europearra, Internet2 iparramerikarra...) eta Internet globalera.
4. i2BASQUE-k Euskal Herriko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza eragileen sare korporatiboen (Saretek) interkonexioa ematen du, modu aktiboan parte hartuz beren sustapen eta garapenean.

Adierazten du

1. *Erakunde eskatzaileak* baliabide informatiko propioak izanik, antzeko beste erakunde batzuenekin interkonektatu nahi duela, Euskal Erkidegoan, estatu mailan eta beste herrialdeetan.
2. *Erakunde eskatzaileak* i2BASQUE-k eskainitako zerbitzu telematikoak erabili nahi dituela.
3. Erakunde eskatzaileak izaera juridiko propioa duela, izendapen sozialpean eta xede sozialarekin, kategoriaren barruan aurkitzen da, "i2BASQUE Sarearen Afiliazio Politika"-n aurreikusitakoaren artean, eta hori ondoko dokumentazioaren bitartez egiaztatuko da:



.....
.....
.....

Guzti honengatik, *erakunde eskatzaileak* i2BASQUE Sarera afiliatzeko eskaera egiten du eta i2BASQUE Sarearen antolamendu eskeman sartzeko oniritzia erakusten du klausula hauek kontuan izanda.

.....(n), (ko) (ren)(an)

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILBURUORDE
TXIT AGURGARRIA**



Klausulak

Lehenengoa: Xedea

I2BASQUE-k *erakunde eskatzailearen* eskura jarriko ditu Zientzia eta Teknologia Euskal Sareak bere presentzia puntuetan dauzkan konektibitatea eta komunikazio telematikorako zerbitzu aurreratuak.

Bigarrena: Konektibitatea, zerbitzuak eta komunikazio protokoloak

Erakunde eskatzaileak zerbitzuaren funtzionamendurako beharrezkoak diren bitartekari teknikoak jarriko ditu, hala nola, egokitu zaion I2BASQUE-ren presentzia punturaino doan komunikazio-linea.

Erakunde eskatzailea behartua dago afiliazio baldintzak betetzen dituzten beren erabiltzaileei I2BASQUE-ra atzipena mugatzera, betetzen ez dituzten guztiei I2BASQUE-ra atzipena eta zerbitzuen erabilera eragotziz.

I2BASQUE-k ez du azken erabiltzaileen zerbitzuen ardura hartzen, *erakunde eskatzailearen* sail edo ikerketa taldeak. *Erakunde eskatzaileak* I2BASQUE-k eskainitako zerbitzuen operazio edo kudeaketaren edozein arduraz salbuetsiko du.

Aukera teknologiko gisa, I2BASQUE-k bere zerbitzuetarako komunikazio protokolo *irekien* erabilera bultzatzen du (fabrikatzaile zehatz batekiko ez menpekoak). Afiliaturiko erakundeetan protokolo partikularrak erabiltzeko beharra justifikatzen duten taldeak baldin badaude, hitzarmen bereziak zehaztuko dira erakunde horien eta I2BASQUE-ren artean, honela protokolo horiek eta berauetatik eratorritako zerbitzu telematikoak sostengatzeko.

Hirugarrena: Afiliazio politika eta erabilera politikaren betetzea

Erakunde eskatzailea eskaera dokumnetu honen parte bananduezina den I Eranskina “I2BASQUE-ren Afiliazio Politika” betetzeaz arduratuko da, eta bere egoera juridikoan edota afiliazio baldintzetan aldaketaren bat suposatu dezaken besteren bat ahalik eta azkarren I2BASQUE-ri jakinaraztera konprometitzen da.

Era berean, *erakunde eskatzailea* “I2BASQUE-REN Erabilera Politika” jasotzen duen II Eranskina, etika eta kortesia arauak kontuan izatera



konprometitzen da, hau eskaeraren parte bananduezina izanik ondorio guztietarako. Arau hauek kontuan ez izateak I2BASQUE-ren zerbitzuak etetea ekar dezake.

Erakunde eskatzailearen aldetik erabilpen oker edo onartezina emango balitz, I2BASQUE entitateari ematen dion zerbitzuaren etetzea suposatuko luke, edo akaso honen zenbait atali:

- Zerbitzuaren behin-behineko edo denbora baterako etetzea. “I2BASQUE-ren Erabilera Politika”-ren urratu eta sarearen zerbitzuen kaltea suposa dezaken edota I2BASQUE nolabaiteko arduradun bihurtzen duen kasuetan hartuko da. Erabaki hau I2BASQUE-ko zerbitzu teknikoek hartuko dute. Zerbitzuaren kaltea suposatu duen eragilea desagertzen denean berrabiaraziko da zerbitzua.
- Zerbitzuaren behin-betiko etetea. I2BASQUE-ko zerbitzu teknikoaren oharren ondoren “I2BASQUE-en Erabilera Politikaren” urratzea berriro ematen den kasuetan aplikatuko da neurri hau. Erabaki hau I2BASQUE-ko Koordinatzaileak hartuko du, I2BASQUE-ren Aholkulari Komitearen adostasun informea jaso ondoren. Zerbitzua berrabiarazi ahal izango da erakundeak hartutako neurriak etorkizunean erabilpen zuzena bermatzen dutela ikusten bada.

Laugarrena: *Erakunde eskatzaile* eta I2BASQUE-ren arteko komunikazioa

I2BASQUE eta erakunde eskatzailearen arteko koordinazioak, azken honi erakundearen erabiltzaile eta I2BASQUE-ren zerbitzuetara heltzeko, lotura funtzioa egotea beharrezkoa du. Funtzio hau I2BASQUE (PEi)-rekin pertsona-lotura bat edo biren bidez zehaztuko da. Pertsona hauen izen eta kontakturako datuak III Eranskinean azaltzen direnak dira, erakundeak edozein aldaketaren berri emateko ardura duelarik.

Erakunde eskatzaileak I2BASQUE-ri, PEi-aren bidez I2BASQUE-ren zerbitzu bakoitzaren arduradunen datuak ematera behartua dago. Era berean, PEi-ak eta zerbitzuen arduradunek dagozkien funtzio guztiak modu egokian garatzeko medioak jarri beharko ditu.

Bostgarrena: I2BASQUE-ra afiliatzeko kudeaketa eta tramiteak

Erakunde eskatzaileak I2BASQUE Sarera afiliatzeko tramiteak egiteko eskaera Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailera bidali beharko du.



Era berean, I2BASQUE-ren bidez, estatu mailako RedIRIS Sarera sartzeko eskaera egin dezake batera, sare honen zerbitzuak erabiltzeko, eta baita RedIRIS-ek hitzarmenak dituen nazioarteko I+D+i beste sareenak.

Seigarrena: Afiliazio baldintzen aldaketa

I2BASQUE-k dokumentu hau eta berekin lotuta dauden dokumentuak aldatu ahalko ditu, eman daiteken eboluzio teknologiko eta legislatiboetara egokitzeko. *Erakunde eskatzailea* egindako aldaketen berri jasoko dute, aldaketetara moldatzeko prozedimendu eta epekin batera.

Zazpigarrena: Erakunde afiliatu izaeraren galera

Erakunde afiliatu izaera honako edozein arrazoiengatik galdu daiteke:

1. Erakunde afiliaturaren betebeharrak ez betetzea. Zerbitzuaren etetzea kasu honetan gutxienez 30 egun aurretik bidalitako ohar batekin egingo da.
2. Afiliazio baldintzen epemuga gainditzeagatik, ikerketa jarduera zehatz batzuri lotuta dagoen kasuetan, edo afiliazioa posible egin zuen egoeraren aldaketagatik.

Erakunde eskatzaileak,

.....



I Eranskina: Red i2BASQUE Sarearen Afiliazio Politika

I2BASQUE Sare Akademikoa Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren (HHPKS) tresna bat da, Euskal Herriko I+D+i komunitateari telekomunikazio zerbitzuak eskaintzeko, eta baita afiliazio baldintzak betetzen dituzten erakundeei.

I2BASQUE sareak I+D+i azpiegituraren parte da, eta estatu mailako (RedIRIS) eta nazioarteko (GEANT) antzeko beste ekimenetara sartzeko bidea da.

Afiliazio baldintzak

I2BASQUE-ren zerbitzueak erabiltzeko, interesatuak dauden erakundeek afiliazio prozesu bat jarraitu behar dute, non erakutsi behar duten:

- Izaera juridiko propioa duen legalki eraturako erakundea dela frogatu behar du.
- Afiliatorako aproposak diren kategorien artean beren jarduera nagusia identifikatzea, HHPKS-k onartutako afiliazio politikarekin bat etorritz.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, I2BASQUE gaineko erakunde gisa, eta bere finantzaketa eta estrategiaren arduradun gisa, afiliazio baldintzak edozein unetan berrikusteko eskubidea du, eta bere kasuan, I2BASQUE-ren parte hartzea afiliaturiko edozein erakundetan.

Afiliatu nahi duten erakundeak gutxienez ondoko kategorietan enkuadratu behar dira:

1. Unibertsitate publiko eta pribatuak, irabazi-asmorik gabea, berari lotutako zentroak barne
2. Ikerketarako erakunde publikoak eta izaera juridiko propioa duten instalazio zientifiko teknologiko singularrak (IZTS)
3. Izaera juridiko propioa duten eta irabazi-asmorik gabeko zentro eta institutu teknologiko eta ikerketakoak, I+D+i Plan Nazionalaren proiektuetan edo erkidego, nazio edo nazioarteko mailan dauden antzeko planetan parte hartzen ari direnak.
4. Ospital publiko eta pribatuetako irakaskuntza eta ikerketa unitateak,



irabazi-asmorik gabeak, eta erkidegoan, nazio edo nazioarteko I+D+i proiektuetan parte hartzen ari direnak.

Aurreko erakundeez gain, afiliatu ahalko dira ere:

- 1. Finantzaketa publikodun I+D+i programen erakunde kudeatzaileak**
- 2. Komunitate zientifiko-teknikoarentzako garrantzitsuak diren, eta honen eskura uzten dituzten, eduki digital bilduma mardula duten izaera juridiko propiodun eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak**
- 3. I+D+i Plan Nazionaleko proiektuetan parte hartzen duten erakundeak edo baliokideak, erkidego, nazio edo nazioartean, proiektuak dirauten bitartean eta hauek garatu ahal izateko.**
- 4. Bere barne I2BASQUE-era afiliatua dagoen erakunderen baten instalazioak dituen irabazi-asmorik gabeko parke zientifiko eta teknologikoak, eta soilik I2BASQUE-ra afiliatuak dauden erakundeentzat.**
- 5. Lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza, formakuntza profesional eta goi mailako ez unibertsitarioak diren zentroak, irabazi-asmorik gabekoak, publiko zein pribatuak, HHPKS-rekin akordioak dauden heinean**
- 6. Euskal Herriko zientzia eta teknologia sistemarentzat interes berezikoak izan daitezken beste erakunde batzu**

I2BASQUE-k beharrezko neurri teknikoak erabili ahal izango ditu erakunde hauekin elkartrukatutako trafikoa zehaztutako helburuetara mugatu dadin.



II Eranskina: I2BASQUE SAREAREN Erabilera Politika

1. Legea

I2BASQUE-k eskaintzen dituen zerbitzuak Euskadi Informazioaren Gizartearen Planaren bidez daude finantziatuak, eta era berean maila estatalean Ikerketa Zientifiko, Garapen eta Berrikuntza Teknologikorako Plan Nazionalak bultzatu eta finantziatutako baliabideak erabiltzen dituzte.

Arrazoi hauengatik, eskaera dokumentuan eta bere Eranskinetan azaltzen diren baldintza eta eskaeren menpe geratzen dira, hala nola, momentuan indarrean dagoen ordenamendu juridikoari.

Afiliaturiko erakundeek praktika ilegalak ez onartzera, ezta laguntzera, konprometitzen dira. Gainera, afiliaturiko erakundeek ondokoa babesteko arreta jarriko dute:

- a) Orden publikoa: I2BASQUE indarkeriaren erabilera edo legez kanpoko jarduerak bultzatzen dituzten mezuen garraiatzaile izatea ekiditeko.
- b) Giza duintasuna: edonolako diskriminazio sozial, erlijioso, etniko, kultural, politiko, sexual edo urritasun fisiko edo psikikoak ekiditeko
- c) Bizitza pribatua: oinarrizko eskubide eta askatasunak babesteko, bizitza pribatua, datu pertsonalak eta sekretu epistolarra tutelatuz
- d) Adin txikikoak: beren erabilera ekiditeko, batez ere helburu sexuarekin, eta kontuz ibiltzeko haurtzaroarentzat bereziki kaltegarriak izan daitezkeen edukien zabalkundean
- e) Kontsumitzailea: gardentasun eta atzipen printzipioak errespetatzeko, kontsumitzailearen babes legediaren menpe mantenduz

2. Zintzotasuna

Afiliaturiko erakundeek zuzen erabili beharko dituzte I2BASQUE-k eskaintzen dizkien baliabide publikoak, sare azpiegiturara soilik baimendutako pertsonalari sartzen uzten, eta ukatuz erakundetik kanpoko pertsona edo erakundeei.

Baimendutako pertsonalak I2BASQUE-ren azpiegitura eta zerbitzuak jarduera akademiko eta ikerketarako, garapen eta berrikuntza teknologikoan, eta lotuta dauzkaten eginbehar administratiboentzat erabiliko dituzte soilik.

Erabiltzaileek ere sarea modu eraginkorrean erabili behar dute, ahal den



neurrian bere kongestioa ekiditeko. Ez da inolaz ere onartuko jarraian aipatzen diren helburu edo ondorioak dituzten jarduerak:

- a) I2BASQUE-ren beste ohizko erabiltzaileak kaltetzen dituzten materialen sorkuntza edo transmisioa
- b) Komunikazio loturen edo sistema informatikoen kongestioa
- c) Beste erabiltzaile batzuen informazioa nahita deuzestu edo eraldatzea
- d) Beste erabiltzaile batzuen pribazitatea eta intimitatea urratzea
- e) Beste erabiltzaile batzuen lana kaltetzea

Ezin dute ezta, inolaz ere ez, I2BASQUE erabili asmo pribatu edo pertsonalekin, helburu ludiko edo nahi komertzialekin, beren erakundeak berezko dituztenez kanpo.

3. Konfidentzialtasuna

Erabiltzaileek, beren eguneroko sarearen erabileran beren anonimatoa mantentzeko eskubidea izango dute. Hala ere, I2BASQUE-k bere erakunde afiliatuei gomendatzen die, beharrezkoa izanez gero, sarea erabiltzen ari diren ekipo eta erabiltzaileen mekanismoak izan dezatela.

4. Jabetza intelektual eta industrial

Afiliaturiko erakundeek autoreek beren sorkuntza intelektual eta industrialen eskubidea dutela onartu, errespetatu eta defendatu beharko dute, indarrean dagoen legedia jarraituz.

5. Erantzunkizuna

Afiliaturiko erakundeek beren erabiltzaileen artean I2BASQUE-ren helburuak ezagutarazi beharko dituzte, eta dokumentu honetan azaldutako eskari eta baldintzak ere. Hauek bete daitezzen ere arduratu beharko dira.



III Eranskina: I2BASQUE SAREAREKIN Lotura Pertsona(k) (PEi)

(erakunde eskatzaileak betetzeko)

PEi 1:

Izena:

Abizenak:

Kargua:

Saila:

Erakundea:

Posta helbide osoa:

Telefonia:

Faxa:

Helbide elektronikoa:

PEi 2:

Izena:

Abizenak:

Kargua:

Saila:

Erakundea:

Posta helbide osoa:

Telefonia:

Faxa:

Helbide elektronikoa:

Akordioa sinatzen duen pertsona berdina edo desberdina izan daiteke. Azken kasu honetan, akordioaren sinatzailearen delegazioz. Beharrezkoa izanez gero, bigarren PEi baten izena ere esleitu.